

IRAKASKUNTZA-JARDUERA EBALUATZEKO DEIALDIARI BURUZKO AZALPEN- OHARRA (BOSTURTEKOAK)

Sarrera-oharra. Deialdia jende askori zuzenduta dagoenez, oinarriak arretaz irakurtzea eta telefono bidezko kontsultak arduraz erabiltzea eskatzen da, zerbitzua ez kolapsatzeko.

Nortzuk har dezakete parte deialdian: Lanaldi partzialeko erregimenean (3 ordu, 4 ordu edo 6 ordu) diharduten irakasleek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan.

Nortzuk daude baztertuta deialdian parte hartzeko: Funtzionarioak eta ikertzaileak.

Zenbat urte behar dira bosturteko bat osatzeko?

Bosturteko bat osatzeko 5 urte behar dira, dedikazio-orduen kopurua edozein dela ere. Hala ere, osagarri bakoitzaren aintzatespen ekonomikoa egiteko, emandako irakaskuntza-kredituen kopurua hartuko da kontuan.

Zenbat bosturteko eska daitezke?

Eskatzaileak eskubidea duen bosturteko guztiak eskatu ahal izango dira, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Zein izango da ondorio ekonomikoen data?

Ondorio ekonomikoak Auzitegi Goreneko Lan Arloko Salak erabakitakoaren arabekoak izango dira, UPV/EHUK aurkeztutako errekurtsua aztertu ondoren.

Lanaldi partzialeko erregimeneko lan-kontratuko langileak, aurreko bi deialdietan parte hartu ez zutenak, baldintzak betez

A) 2022ko abenduaren 31n 2024ko deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen zitezten eta eskaera egin ez zuten lanaldi partzialeko erregimeneko irakasle lan-kontratudunek orain egin ahal izango dute, merezimenduak 2022. urteari egotziz.

B) 2023ko abenduaren 31n 2024ko deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen zitezten eta eskaera egin ez zuten lanaldi partzialeko erregimeneko irakasleek, orain, merezimenduak 2023. urteari egotziz egin ahal izango dute.

Irakaskuntzako aurretiko zerbitzuak

Irakaskuntzako aurretiko zerbitzuak sektore publikoko irakaskuntzako erakunde edo entitateetan emandako zerbitzuak dira. Zerbitzu horien egiaztatagiriak (I. eranskina) espedientean ez badaude bakarrik aurkeztu beharko dira. Zerbitzu horiei buruzko dokumentazioa bere garaian aurkeztu bazen eta, beraz, espedientean jasota badago, nahikoa izango da erakundea eta hasiera- eta amaiera-data adieraztea, irakasle eta ikertzaileen zerbitzuak behar diren egiaztapenak egin ditzan.

Leioan, 2024ko apirilaren 24an

IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ZERBITZUA

